



Inicio | Sobre nosotros | Publicaciones | Participa

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica es una revista en formato digital que publica artículos relacionados con los procesos de enseñanza y aprendizaje, a través de Internet y bajo la licencia Creative Commons.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica es una publicación seriada, gratuita y libre de ser impresa que cada seis meses divulga artículos científicos, propuestas didácticas y artículos de opinión sobre cuestiones relativas al mundo de la didáctica.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica asume como objetivo principal la difusión del conocimiento pedagógico y de metodologías didácticas que favorezca la expansión de prácticas de educativas efectivas.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica es una revista bilingüe, abierta a propuestas de autores y autoras que deseen publicar trabajos inéditos tanto en euskara como en castellano.

IKASTORRATZA. Didaktikarako e-aldizkaria

IKASTORRATZA. e-journal on Didactics

IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica

ISSN: 1988-5911 (Online) Journal homepage: <http://www.ehu.es/ikastorratza/>

Juan Kruz Igerabideren haur poesia: Botoi bat bezala (1999). Irudia eta Haikua

Jon Kortazar Billelabeitia
jon.kortazarb@ehu.es

Jon Kortazar
jon.kortazar@ehu.es

To cite this article:

Kortazar Billelabeitia, J. & Kortazar, J. (2021). Juan Kruz Igerabideren haur poesia: Botoi bat bezala (1999). Irudia eta Haikua. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 27, 94-113. DOI: 10.37261/27_alea/4

To link to this article:

https://doi.org/10.37261/27_alea/4

Published online: 30 Sept. 2021

Juan Kruz Igerabideren haur poesia: *Botoi bat bezala* (1999). Irudia eta Haikua.

Children's poetry by Juan Kruz Igerabide: Botoi bat bezala (1999). Image and Haiku

Jon Kortazar Billelabeitia¹ & Jon Kortazar²

¹ Bilboko Hezkuntza Fakultatea
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. UPV/EHU
jon.kortazarb@ehu.eus

² Bilboko Hezkuntza Fakultatea
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. UPV/EHU
jon.kortazar@ehu.eus

Laburpena

Artikulu honetan Juan Kruz Igerabideren *Botoi bat bezala* liburua aztertu dugu. Bere inguru historikoetan eta egilearen sorkuntza giroan, ibilbide artistikoan, kokatu ondoren, azterketak Japoniako poesiarekin duen lotura ikertu du. Haikuaren eragina aztertzea du lehen helburu. Horretarako haikuaren barnean diren ezaugarri nagusiak aipatu dira: *kigo*, *atarashimi*, *toriawase*, elipsia, agur edo elkarrizketa aipuak, eta sortzeko unean gertatu ohi den elkar lankidetzatza liburuan nola ageri diren zehaztu da. Horrez gain, eta bigarren helburu gisa, irudiaren garrantzia aipatu da, eta haur baten begien bidez liburuak jaiotza eta heriotzaren gaiak nola bideratu dituen azpimarratu. Toki berezia eman zaio, halaber, gaiak liburuan duten eraketari, eta gaien egitura marraztu da.

Hitz gakoak: Haur poesia, Haikua, Irudia.

Abstract

In this article, we reviewed the book *Botoi bat bezala* by Juan Kruz Igerabide. After placing it in its historical context, the study examines the relation it holds with Japanese poetry. The primary objective of this article is to examine the importance of Haiku on the poetry of Igerabide. To achieve this objective, different elements of haiku have been mentioned as well as placed how appeared in the bokk: kigo, atarashimi, toriawase, ellipsis, interactions in farewell or in conversation and the inter-cooperation on the moment of the creation. As secondary objective the importance of image is also mentioned, as well as the understanding of the act of giving birth and death from the point of view of a child. Finally, we have specially considered the structure of the themes across the book.

Key words: Children's poetry, Haiku, Image.

1. Sarrera: *Botoi bat bezala* liburua egilearen sorkuntza bidean

Juan Kruz Igerabide (Aduna, Gipuzkoa, 1956-) euskal haur literaturan idazle nagusi gisa onartuta dagoen autorearen dugua. Lan handia egin du euskal letren esparruan. Nobela (*Zangoztraba*, 2014) eta poesia (*Lainoa janean* 2015) idatzi ditu: azken aldian aforismoak idaztea eta argitaratzea maite du eta bere lanen artean honako hauek dira aipagarriak: *Herrenaren arrastoan*, 1998, *Egia hezur* 2004, *Labur txintan* 2017, *Noiz arte arrazoi* 2020. Haur literaturan aldiz, lan zabala egin du eta gazteentzako nobelaz (*Hamabi galdera pianoari* 1999, *Ez lemaio. Arrasateren erreketak* 2017) eta nerabeentzako poesiaz (*Kartapazioko poemak* 1998, *Maite poemak hasiberrientzat* 2016) gainera, haur poesia ere zabaltasunez eskaini du. Hiru lan aipatu ditugu hemen: *Begininiaren poemak* (1992), *Egun osorako poemak eta beste* (1993), *Hosto gorri, hosto berde* (2002).

Juan Kruz Igerabidek argitaletxe askotan argitaratu du bere lana (Elkar, Erein, Alberdania, Beta, Denon artean) eta ez du oztoporik izan gazteleraz argitaratzeko, horrela bere lana hizkuntza nagusienetara itzuli izan da. Elixabete Manterolak eratu duen *Euskal Literatura Itzuliaren Katalogoan* haren 111 lan ageri dira beste hizkuntzetara itzuliak. Bernardo Atxagarekin (338 itzulpen) batera euskal idazle itzulienetakoa da Juan Kruz Igerabide.

Sakontasunez egindako lan horregatik 2018an Espainiako Haur eta Gazte Literaturaren Sari Nazionala eskuratu zuen *Letren txotxongiloa. Abecedario Titirijario* deituriko lanagatik izendatu zuten. Epaimahaiaren arrazoiak hauexek izan omen ziren:

Por la maestría en el uso de un lenguaje poético que se nutre tanto de la aliteración de ecos simbolistas, como del humor *nonsense*, el absurdo, la fantasía rodariana y ecos de la tradición oral vasca. (Ministerio de Cultura y Deporte, 2018; El Cultural, 2018)

Haren idazkeraren ezaugarri horiek aipatuak eta aztertuak dira euskal haur poesiaz, eta oro har poesiaz, idatzi zuen saiakeran. *Bularretik mintzora* (1993) / *Del pecho a la palabra* (2020) liburuak pista ederrak eman ditu beti Juan Kruz Igerabidek egin nahi izan duen eta egin duen poesiaren arlo teorikoak ulertzeko.

Botoi bat bezala/ Como un botón (1999) Juan Kruz Igerabideren haurrentzako poesia ulertzeko eta egiteko adibide ederra dugu eta horrexegatik aukeratu dugu gure

azterketa honetarako. Sarreratxo honetan azaldu ditugun zenbait ezaugarriren eredu nabarmena da liburua. Egileak jokabide hauek erakutsi ditu: argitaletxeen mundu zabalean jokatzeko gogoia, gaztelari muzin ez egiteko gogoia (liburua hizkuntza biotan agertu baitzen, nahiz eta guk gaurkoan euskarazkoa soilik hartuko dugun kontuan) kantua eta kontua biltzeko asmoa.

Egia da, bestalde, ez dela liburu oso ezaguna Juan Kruz Igerabideren ibilbidean, adibidez egilearen obra guztiak aipatzen ez dituen Zubitegian (Literaturaren Zubitegia, d.g) ez da ageri. Dena dela, ezin dugu alde batera utzi, zeren haur poesia egiteko Juan Kruz Igerabidek erabili ohi dituen teknika eta espresibideen adibide berezia baitugu.

Gainera, ez da solte sorturiko liburua. *Begi-niniaren poemak* (1992) dugu liburu honen aurrekaria, liburua poema laburrez osatua da eta narrazio aldetiko gaiaren batasuna garbia da. Modu berean, lotura oso estua du *Hosto gorri, hosto berde* (2000) deituriko liburuarekin. Biak plazaratu ziren euskaraz eta gaztelaniaz batera eta bietan Japoniako literaturan ezaguna den “haiku” ahapaldiaren eragina oso markatua da. Gainera, biek dituzte Elena Odriozolaren marrazkien magia, zirrara eta iradokizunean laguna.

Egia da *Hosto gorri, hosto berde*-k harrera hobea izan duela irakurleen aldetik, bere testuarekin antzerti ikuskizuna eratu zuten Baionan eta horregatik frantsesera itzuli zen (Igerabide 2005). Kritikak ere arreta berezia eskaini dio eta alde horretatik zenbait ikerketa desberdin agertu dira bere izaera aztertzeko (Kortazar 2002, Billelabeitia, 2009, Billelabeitia, 2011, Gardezabal, prestatzen), edo, Elena Odriozolak libururako egindako marrazkien sinbologia mundua ikertzeko (Sánchez 2019).

Botoi bat bezala agertu zuen urte berean, Juan Kruz Igerabidek, bere ugaritasuna eta moldeen erabilera anitza erakutsiz beste liburu hauek ere argitaratu zituen: *Hamabi galdera pianoari* (1999), *Helena eta arrastiria* (1999), *Jonasen pena* (1999), *Leo Ferguson* (1999) eta *Ttolo maitea* (1999). Bertan haurrentzako narrazioak ditugu, Euskadi Saria jasotzera eramane zuen Jonas pertsonaiaren saileko ale bat, eta nerabeentzako nobela ez oso aztertu baina sendo bi: *Hamabi galdera pianoari* eta *Helena eta arrastiria*, biak bizitzaren eta heriotzaren inguruan eratuak eta moldatuak.

Liburu biok izan badute zerikusirik haurrentzat idatzitako *Botoi bat bezala* liburuarekin, poema sorta honetan ere bizitzaren eta heriotzaren inguruko galderak hartu baitute toki nagusia, protagonismoa. *Hamabi galdera pianoari* nobelan, ama galdu duen

neskatxa baten bizitzari buruzko galderak jarri ditu orriotan Juan Kruz Igerabidek. *Helena eta arrastiria* kontakizunak beste horrenbeste egin du erizaina den neska gazte baten ikuspegitik. Galdera horiek dira *Botoi bat bezala* liburuari bere sena eta ardatza eman dizkiotenak.

2. Izenburua: *Botoi bat bezala*

Liburuaren izenburua liburuaren bigarren poeman ageri da eta haur baten jaiotza azaldu du.

Botoi bat bezala

Botoizulotik botoia bezala

Jaio nintzen negarrez.

Ilargia irribarrez. (Igerabide, 2020, 8)

Poema laburrak liburu osoaren tonua ematen du hasiera hasieratik. Haikuaren estetikan gaude, baina haiku batek metrika zehatza du: 7-5-7, eta Juan Kruz Igerabide idazleak ez du liburu honetan haikuaren metrika jarraitu nahi. Aske sentitu nahi du bere eskua, eta poema hauek ez dute haikuaren metrika jarraitu: 11-7-7 neurria du aipatu dugun horrek, baina Japoniako moldearen irudi teknika jaso du: laburtasuna, zehaztasuna, iradokizuna.

Irudiaren eremuan gaude: konparaketak (“botoia bezala”) eta irudiak (“Ilargia irribarrez”) osatu dute poema, ekintza sotila besterik aipatu delarik: “Jaio nintzen negarrez”.

Irudi poetikoa ekintza baten bisualizazioak, zerbait ikusteak sortu duen iradokizunean oinarritu ohi da. Egileak errealitatearen aipamena egin du eta aipamen horrek interpretatu, irakurri, beharko duen zerbait komunikatu dio irakurleari.

Hiztegi Batuan definizio trakets hau, “gauza” hitza definizioan eta definitzailean eman baita, adierazi du Euskaltzaindiak:

Gauza edo ideia bat gogorazten edo iradokitzen duen gauza. (“Irudi”; 2021)

Zehatzagoa da, eta guretzako erabilgarriagoa, RAEk emaniko definizioa:

4. f. Ret. Recreación de la realidad a través de elementos imaginarios fundados en una intuición o visión del artista que debe ser descifrada (“Imagen”, 2020).

Hiru elementu ditugu esaldi horretan: artistaren intuizioa edo ikuskizuna, horren hitzen bidezko ikuskizunaren birsortzea eta irakurlearen interpretazioa.

Demetrio Estébanez Calderónek Literatura Terminoen hiztegirik zabalena egin du gazteleraz (Euskaltzaindiko *Literatura Terminoen Hiztegian* ez da ageri “irudi” hitza), eta honela definitu du “Irudi” hitza:

Imagen: [...] Sugiere la idea de representación sensible de un objeto o de una persona [...] La literatura opera con imágenes creadas por la fantasía del escritor. Estas imágenes cumplen la función de representar, de dar forma sensible a ideas, conceptos, intuiciones que el poeta desea transmitir. (Calderón, 1996, 552)

Jarraitzeko, hona hemen helburua deskribaturik:

Con el fin de plasmar una realidad en su corporeidad sensible, el poeta tiende a suscitar en el lector idénticas sensaciones a las que él experimente ante esa realidad o ese objeto de su imaginación. (Calderon, 1996: 553)

Juan Kruz Igerabidek poematxo horretan proposatu duen irudiak hiru elementu horiek bete ditu. Lehenik bere ikuskizun bikoitza dugu: botoia botoi zulutik bezala irteten da, eta ilargia irribarrez, dago. Bigarrenez, ikuskizun hori hitzez eman du Igerabidek. Hirugarrenez, irakurleok gurea egin behar dugu eta ikusi haurra amaren sabeletik irten dela botoia irteten den bezala, eta hala nola, bizitza berriaren aurrean ilargiak poza ageri duela. Irudia gure egiterakoan irudiaren esanahia gureganatu egin dugu.

Egileak berak eman du irudiaren definizioa bere lanetan:

Se suele distinguir entre **imagen poética**, la que conecta una emoción interior con una imagen exterior (en muchos casos con una imagen de la naturaleza), **símbolo** (una imagen que expresa también una emoción, pero ligada a la imagen de contenido sapiencial, analógico, no conceptual, de transmisión cultural) y **metáfora**, que implica una relación indirecta entre palabra y significado, mediante una semejanza implícita. (Igerabide 2020, 178).

Beraz idazleak barne emozioa lotu du kanpoan ageri den egoera batekin, izaera batekin. Hau estu-estu loturik dago haikuarekin: “Un ejemplo de imagen poética en estado puro es el haiku japonés, esa estrofilla de 5-7-5 sílabas” (Igerabide 2020, 178).

3. Haikua eta Haikuaren barne bidetik zehar

Esan dugu *Botoi bat bezala* liburuko poemak ez direla haikuak, ez baitute metrika jarraitu. Baina poema gehienek izan ohi dute bukaera aldean irudi indartsua, eta irudi horri epifania deitu ohi zaio, poemaren irudi bilakaeraren emozio dardara unea. Hau aipatuta, jabetuko gara *Botoi bat bezala* liburuko poemak epifanietan oinarriturik daudela.

Metrikaren gaineratik irudi poetikoa beraz: Huts-hutsean: Biluzik:

Estoy convencido que la imagen poética desnuda es uno de los alimentos poéticos más nutritivos para la mente infantil desde el momento que pasa de las imágenes rítmicas a las visuales, proceso que comienza más o menos a partir de los cuatro o cinco años, y que va en paralelo con la evolución de la competencia lectora. (Igerabide, 2020, 178)

Haikuak sei ezaugarri nagusi ditu Seiko Ota (2020) ikerlariaren arabera:

- 1) *Kigo*, urtaroaren inguruko hitza. Seiko Otak azaltzen duen bezala, haiku batetan unean unekoak garrantzi handia du, eta normalean izadiaren une batekin lotua da; baina Japoniako izadia hain aldakorra denez, lau urtarotetan, nahikoa da aipamen sotila iradokizun garbiak sortzeko irakurlearen barnean (2020, 41-47).
- 2) *Atarashimi*, berritasunaren ekarpena. Haikuak berritasuna lortu behar du, eta gai hori erabiliz aipatu zuen Basho handiak, berarentzat berria ezezaguna zen mundu baten sartzea zen, eta horrela tradizio jasoa eta egunerokotasun arrunta batzen saiatu zen (Ota, 2020, 57-59).
- 3) *Toriawase*, gai biren elkarketa. Berritasuna gai desberdinak batuz lortzeko modua dago. Esan beharra dugu Otak azpimarratu du teknika horren bidez aberastu egiten dela haikuaren iradokizun indarra (Ota 2020: 57 eta 77-78).
- 4) Elipsia. Isiltasuna haikuaren joerarik nagusia dugu. Esanda ez dagoena irakurri behar du beti haiku tradizioko irakurleak eta horixe eskatuko dio Juan Kruz Igerabidek (Ota 2020: 102-107).

- 5) Haikua agur edo elkarrizketa gisa. Haikuaren sorrera unean poema labur eta txiki hori etxeko jaunari agur gisa ulertu zen, gure eskari kopletan gertatzen den moduan, eta horrela jasotzen dute gaur eguneko haiku egileek Japonian. Horrelako agurrari erantzuna eman ohi zitzaien eta, gure arteko bertsolaritzan gertatzen den moduan, elkarrizketa sortzen zen poeten artean. Ez da joera hori guregana heldu dena. Gure mendebaldeko haikuaren erabilpenean ez da tradizioa gorde, nahiz eta Japonian zabalik dagoen modu bat bai egin dugula gure. Japoniarrentzat natura ere izaki biziduna da eta hari ere agurmena egitea zilegi da (Ota, 2020, 117-118).
- 6) Sormen unean elkarrekiko lankidetzak. Ezaugarri hori ere haikuaren Japoniako tradizioan aurkitzen dugu, baina ez gurean, literatura lana hain bakarlanari emana dugun honetan (Ota, 2000, 135-137).

Juan Kruz Igerabidek argi utzi du *Botoi bat bezala* liburuan haikuari ez diola peto-peto jarraitu, irudiari garrantzi handiagoa eman diola. Baina irudi horretan Seiko Otaren teoria jarraituz, orain aipatu ditugun zenbait ezaugarri bere obran dira.

Batez ere lehen laurak dute agerpena bere lanean: *Kigo*, urtaroei buruzko hitza, baina era berean joan doan unea oso kontutan hartzen duen poesia da berea; *Atarashimi*, berritasuna, gaurkoa eta tradizioa lotzen duen mundua; *Toriawase*, gai bi batzeko joera eta *Elipsia*, isiltasunaren agerpena.

Har dezagun berriro liburuari izenburua eman dion aurreko poema hori, eta ikus dezagun Japoniako tekniken argitan:

Botoi bat bezala

Botoizulotik botoia bezala

Jaio nintzen negarrez.

Ilargia irribarrez. (Igerabide, 1999, 8)

Ez dago urtaroei buruzko aipamenik, baina bai uneari eta unearen agerpenari: “Jaio nintzen negarrez” bertsoak une berezia azpimarratu du eta *kigoa* agertuko luke. Honela adierazi du unearen garrantzia Seiko Otak, Tereda Torhiko ikerlariaren hitzak gogoratuz:

No puede haber *haikai* (=haiku) enunciando solo hechos inmutables que no tienen relación con el cambio del tiempo. No se puede apreciar una imagen concreta sin captar un momento o un punto de la corriente del tiempo y describirlo. (Ota, 2020, 41)

Jaiotzaren unea aipatuz, esperientzia berri baten aurrean jarri gaitu poetak. Unea da garrantzitsua testuan. Izan ere hainbat alditan dago unea *Botoi bat bezala* liburuan. Hara hemen adibidea, denbora gelditu nahi da, unea geratu joan doan denboraren aurrean:

Aitonak

Irratia piztu:

Denboraren hotsa

Itzali nahi du. (68)

Hor ere irratia pizteko unea azpimarratu du egileak denboraren jarioaren aurrean.

Atarashimi teknika oso nabarmen ageri da “Botoi bat bezala” poematxoan. Batetik berria eta egunerokoa dena aipatu da poeman: botoia, botoi zuloa... ez da izadiaren aipamena, baina laster ikusi dugunez, burua amaren sabeletik agertzea, botoi zulotik botoiak egiten duen moduan unea goraiatzeari da eta berria eta tradizioa lotzea, *Atarashimi* teknika egoki erabiltzea. Gaurko munduaren agerpena etengabea da Juan Kruz Igerabideren liburu honetan: atea, kometa, bizikleta, irratia, auzoa, hiria, makila... Ohikoak diren izadiko elementuez gain Juan Kruz Igerabide arruntak diren hitzekin ere poesia sakona sortzen iaioa da. Honela deskribatu du Ota esapide horren erabilpena:

Podríamos decir que la novedad (lo vulgar) es antónimo de la tradición (lo elegante). Esa ‘novedad’ es como si se persiguiera algo que no había existido antes [...] Tiene vitalidad, abundancia de sentidos generosos, una verdad del corazón puro que nos emociona infinitamente, de lo que carece lo elegante. (Ota, 2020, 57-58)

Toriawase jokoa puntu bi batzeko orduan ageri zaigu irakurtzen ari garen poematxo horretan. Alde batetik unea dugu, haurra eta bestetik ilargia: “jaio nintzen negarrez” eta “ilargia irribarrez”. Kontrajarpen bi daude hor: haurra eta ilargia alde batetik, eta joera bestetik, bata negarrez, eta bestea irrika. Gai bi batu ditu poetak eta era

bateko *Toriawase* teknika jakin du egiten irakurlearen munduan emozio sormena lortuz. Joera horren eragina nabari da:

Combinando dos temas dos temas diferentes se engendra una imagen nueva que no se puede crear con un solo tema y, así, permite [...] desarrollar al máximo la imaginación del lector” (Ota, 2020, 77).

Isiltasuna eta elipsia dira haikuek darabilten teknika garrantzitsua. Horixe darabil Igerabidek bere esku trebarekin. “Botoi bat bezala” poeman isiltasun puntu bat egin da bigarren eta hirugarren bertsoen artean. Hor egin da gai biren arteko lotura: alde batetik gizakia eta bestetik natura, nia eta ilargia. Baina isiltasunak toki handia eman dio irakurleari.

Poemaren puntu isil bat ezkutuko metaforetan datza, metafora ezkutuen isiltasunean. Metafora joko bat dago elipsiaren azpian, irudi joko fin eta sotila. Botoi zuloa azken batean amaren sexuaren irudia da, bere bertikaltasunean eta beretik sortu da buru bat, haurraren burua, botoi bat bezala. Kontua da botoi zulo baten irudia duela, bere bertikaltasun borobilean, ilargiak, batez ere ilgora edo ilbeheran denean. Emakumearen sinboloa bi aldiz adierazi da isilean testuan, botoi zuloaren bidez, eta ilargiaren bidez; pentsatu behar dugu baita ere gure kulturean ilargia emakumearekin loturik dagoen sinboloa dela. Baina maisuki lotu ditu egunerokoa eta jaso, gizakia eta natura, haurra eta ama, hain sinplea eta hain betea den poematxo horretan.

Beste horrenbeste ikus dezakegu lehen poeman eta hirugarrenean. Hona hemen biak:

Iribarrea

Gizonaren irribarrea,

Emakumearen irribarrea,

Musu bat, eta ni. (6)

Bizitza

Begiak ireki:

Bero eta gorri,

Bi eguzki. (10).

Hiru poemotan haurraren bizitzaren lehen uneak aipatu zaizkigu: sorkuntza, jaiotza eta amaren eradoskia. Hiruretan dira presente aipatu ditugun teknika nagusi horiek, gure irudimena ernaltzen duten bideak: unearen aipamena, aditzaren jokoan; egunerokoaren aipamena; bikoiztasuna, subjektua eta izadia batuz; eta azkenean, iradokizuna indartzeko balio duen isiltasun puntua.

4. Haikutik Irudira. Epifania

Baina esan dugu *Botoi bat bezala* liburuan ageri diren poemak ez direla haikuak. Ez dute haien metrika, batzuk hiru bertsoz osatu orde, lau lerroz egin ditu poetak. Izan ere, haikuen barne bizitza badute, baina irudiz osaturik dira liburuko poema txiki gehienak. Gure sistema literarioan askotan parekatu dira haikuak eta koplak zaharrak, eta batez ere ahapaldi hauetan ageri den lehen zatia parekatu da haikuekin eta haietan ageri den irudi munduarekin.

Agian ez zen lehena izango baina Jose Ariztimuñok, Aitzolek, euskal poeten artean eragin handia izan zuen azterketa argitaratu zuen 1933an *Eusko Olerkiak 1933* liburuan, nahiz eta batean baino gehiagotan eman zuen plazara lana. Liburu horren hitzurre moduan jarri zuen “Euskal elerti-kerak berezia (Estetika)”, *Yakintza* aldizkarian ere eman zuena.

Bertan koplak zaharra euskal estetikaren erro gisa aurkeztu zuen, herri poesia eta poesia landua kontrajarriz eta haren alde eginez. Euskal herri poesiaren ikuskizun berezi gisa jarri zuen koplak zaharretan ageri zen jokoa, irudiaren eta pentsakizunaren edo erreferentziaren arteko lotura ahapaldian. Gaur zahar samarrak diren hitzetan honela definitu zuen ahapaldia:

Len aitaturako gauzak, edo aien kidekoak, apaldietako lenengo bertsoetan arkituko ditugu, irudi antzo: aizken bertsoetan, berriz, olerkrik adierazi nai lukeen asmo edo oldozkuna.

Ementxe ipintzen ditudan apaldietan oar zenezake, irakurle, irudi-oldozkunen zer ikusi ori, bertso talde batzuen barne-muiñetan. Ura, irudia, iragarle bezela beti lenen, beste oneko au, oldozkuna, oiuegilleak adierazten duen zalduna, ez, azkena. (Ariztimuño, 1933, XI)

Lanaren garrantzia ez zetorren definizioari emandako tokiagatik. Artikulu luze horretan Ariztimuñok, Aitzolek, adibide pila bat eskaini zien idazleei: gaiak, adibideak metaforak, irudi puntuak:.. Irudi elementuk gaika sailkatu zituen, kopla zaharra ageri zen generoak banatu zituen (maite kanta, eskale kanta, dantzarako kopla...). Poesia jaso, zailaren eta herri poesiaren arteko eztabaidan 1933 Olerti Saria Francisco Etxeberriak kopla zaharrez osaturiko “Bost Lore” poemarekin irabazi zuela profitatuz Aitzolek herri lirikaren formen alde egin zuen erabateko indarrarekin, eta haren atzetik joan zen Lauaxeta gaztea adibidez.

Juan Kruz Igerabideren *Botoi bat bezala* liburuan irudia erabili da, kopla zaharrean lehen atalean ageri den lehen aldiko irudiak jaso ditu bere lana osatzeko.

Irudi horiek solte ageri dira, ingururik gabe, bere bakartasunean eta bere osotasunean, eta neurri baten irudiak irakurlearen sentipen mundua ukitu eta biziarazten du. Irudiok poesian epifania izenarekin ezagutzen den espresio poetikoa sortu dute.

David Lodge nobelagileak eta ikerlariak honela definitu du epifania:

James Joyce [...] aplicó la palabra al proceso por el cual un suceso o pensamiento corriente se transforma en una muestra de la belleza eterna mediante la escritura. ‘cuando el alma del objeto más común nos parece radiante’ como dice Stephen Dedalus, su *alter ego* literario. El término se aplica de forma más laxa hoy día a cualquier pasaje descriptivo en la que la realidad externa está cargada de una especie de significación trascendente para quien la percibe. (1999, 219)

Lodgek kontzeptua nobelan eta prosan aztertu du, baina aitortzen du epifania poesiaren alorrean ageri dela batez ere, eta lirikaren izaerarekin lotua dagoela era hertsieratsian:

En las epifanías es donde la narrativa se acerca más a la intensidad verbal de la poesía lírica (la mayor parte de los poemas líricos modernos nos son de hecho sino epifanías): es probable, así pues, que la descripción epifánica sea rica en tropos y aliteraciones. (1999, 221)

Pasarte horietan adierazi zaigu zeintzuk diren epifaniaren ezaugarri nagusiak: kanpoko errealitatearen aipamena, esaldi horren transzendentziaren harrera eta irudi poetiko ugarietz egindako esaldia, bertsoa.

Horrela jokatu du tai gabe, atsedetik hartu gabe Juan Kruz Igerabidek liburu horretan. Edozein orrialdetatik zabaltzen dugula liburua, irudia izango dugu begien aurrean eta irudiarekin batera epifania. Hona hemen adibide bi:

Zorion haizea

Kanta ezan, txori:

Betor nigana

Zorion haize hori. (38)

Neskatoaren begiak

Elurrezko bi Ilargi

Eta elur horietan

Eztizko bi Lur gorri. (52)

Irudiak dira biak. Kanpoan gertatzen diren elementu bi; bata ekintza, txoria kantuka; bestea deskribapena, neskatoaren begiak. Biak, baina, ingururik gabe. Soil eta sotil. Airean bakarrik balira bezala. Biak dira, baina, arruntak, egunero gertatzen direnak, edo entzun eta ikusi ditzakegunak.

Baina biek jotzen dute “errealitatearen beste aldera”, iradokizunen mundura: batean soinua, kanta zoriona bihurtu delako, bestean begiak elurrezko ilargi eta eztizko lur bihurtu direlako.

Bietan tropoak ugariak dira. Zenestesia dugu lehenean, kanpo sentipena, kantua, barne sentipena, zorion gisa izatera egiten du bidea. Aliterazioa ere aberatsa da, txistukarien jokoan, eta txoria emakume gisa agertzerakoan (“ezan” aditza erabili da). Irudi literarioen mundua aberatsagoa da bigarren adibidean, metaforak dira nagusi, begien zuria ilargi eta elur bihurturik, ninia ezti, errepikapenak hortxe direlarik, eta egileak musikaren indarra maisuki erabili duelarik. Gainera “Eztizko lurra” esaldi biblikoa dugu, Moisesek Egiptotik joandako israeldarrei agindutakoa lur berrian.

Hor dugu irudia, hortxe epifania, etengabe poemaz poema, irakurlearen harridurarako, behin eta berriro lotura sakonagoak idatziz.

5. Niaren ikuspegia. Ahotsa

Botoi bat bezala liburuak gure irudimenaren aurrean jarri duen mundua haur (jaio berri) batek ikusia da. Haur batek ikusten du azalduko zaiguna. Haren begietatik ikusten dugu komunikatu zaiguna. Niaren ikuspegia da liburuan erabili dena baina haur batena, mundua sinpletasunez eta harriduraz begiratzen duena. Horren adibide nagusia da hirugarren poema. Sortu izana eta jaio ondoren, amaren tititik esnea hartzerakoan, haurrak amaren bularra ikusten du:

Bizitza

Begiak ireki:

Bero eta gorri,

Bi eguzki. (10)

Poema laguntzen duen Elena Odriozolaren irudiak azpimarratu egin du ikuspegia: Hor ikusten ditugu bular/eguzki bi, haurrak ikusiko lituzkeen modu berberean.

Ikuspuntua dela eta, David Lodgek hauxe idatzi du:

Puede afirmarse que elegir el o los puntos de vista desde el cual o los cuales va a contarse la historia es la decisión más importante que el novelista [idazleak esango genuke guk] debe tomar, pues influye enormemente sobre la reacción tanto emocional como moral de los lectores frente a los personajes ficticios y sus acciones. (Lodge, 1998, 50)

Juan Kruz Igerabidek baten baino gehiagotan esan digu nola bilatzen duen egiantza haur baten begietatik poesia egiten duenean. Honela hitz egin zuen bere liburu teorikoan: “La mirada de un niño ante una obra de arte puede resultar más esclarecedora que un compendio de estética” (Igerabide, 2020, 209). Haurraren ikuspegia aukeratzu irakurleen harrera bideratu du, eta haien emozio erantzuna jaso. Haurraren esperientzia kontatzen da, eta kontakizunaz ondoren egingo dugu hitz, bizitza esperientzia, joera existentziala ahaztu gabe. Horregatik dira esanguratsuak gaixoari buruz edo zahartzaroari buruz egindako poemak, haietan haurraren ezjakintasuna poesia bihurtu delako.

Gurasorik ez

Umezurtz txiki:

Gogor eusten dio

Kometa eder bati. (28)

Paseatzen

Hor doaz makila

Eta aitona

Lurreko istorio bila. (48)

Irakur ditzagun poema biak, lotuta baitaude. Biak batera irakurriz, kontrajarpena da nagusi: haurra eta aitona, heriotza eta bizinahia, objektuak eta pertsonak. Baina orain objektuen garrantziaz hitz egin beharko genuke, zeren biotan objektuek laguntzaren metonimia baitira. Haurrari gurasoak hil zaizkio eta kometa du lagun, horregatik “gogor eusten dio”, laguntza eske, ziurtasuna bilatuz, esku lagun baten beroa eskatuz. Horrenbeste esan dezakegu makilari buruz. Makila doa aitonaren aurretik denbora nora doan erakutsi nahi balio bezala. Kometa eta makila biak existentzian eusgarri.

Existentziaren indarra, bizitzaren poza eta nekea dira *Botoi bat bezala* liburuko adar nagusia, horren inguruan sortu du Juan Kruz Igerabidek bere espresio poetikoa. Hitza eta bizitza, eta hitza bizitza bihurtzen den neurrian bizitzak eman dio arnasa hitzari.

Sari Nazionala irabazi zuenean, honela adierazi zion gaia elkarrizketatu zuen kazetariari:

¿Más allá de lo lúdico guarda también algún fin didáctico?

-Sí y no. Busca que se aprenda, pero con fines no didácticos. Es un aprendizaje conjunto con el lector. Aprendo a vivir mientras escribo, al igual que el lector aprende a vivir cuando lee. Nos intercambiamos un poco de esa experiencia. (Oliveira Araújo 2018)

Existentzia eta esperientzia dira Juan Kruz Igerabideren haur poesiaren muga nagusiak. Bizipenak eman dio sakontasuna testuari. Poesiaren espresio bideak bizitzaren

muga du helburu nagusi. Horregatik liburuak mugimendu bat adierazi du eta jaiotzatik heriotzarako bidea adierazi du era xume batean. Juan Kruz Igerabideren poesiaren oinarrian joera isila dago beti. Bere espresioa iradokizunean egin da hitz eta beti ari da isiltasunetik hurbil.

Itzuli gaitzen baina bere saiakera liburuaren izenburura. *Del pecho a la palabra. Infancia de canto y cuento* (Igerabide, 2020) deitu du, eta guk orain azken hitzotan jarriko dugu arreta: kantua eta kontua. Poemak dira kantu, baina bere txirikordan liburuan bihurtu dira kontu, bihurtu dira kontakizun. Puntu biak dira bere estetikaren oinarri. Poemen epifaniak poemaren kantu izaera indartu du, bere erritmoarekin, bere errimarekin, baina testsuak banan-banan bilduz liburuak bide bata erakutsi digu: esperientziaren bidez jaiotzatik heriotzara doan bidea.

Idea hori azaldu zion egileak elkarrizketatu zuen kazetariari:

Si tuviera que elegir un solo género literario, ¿con cuál se quedaría?

-Con la poesía. Mi aportación más especial está en la poesía infantil. Pero para mí la poesía está muy ligada al cuento. La poesía me lleva al cuento y el cuento a la poesía. (Oliveira Araujo, 2018)

Aipua ongi jarri digu ideia begien aurrean: kantutik kontura; poesiatik kontakizunera eta kontakizunetik poesiara, elkarri eskua emanaz, bata besteren joko batuz eta sakonduz. Poemak banan-banan ageri dira, baina elkarrekin jaiotzatik heriotzara doan sentipen mundua sortu dute.

6. Ondorioak

Horrela liburuak egitura jakina du 35 poemen agerraldian. Honela deskribatu du egileak liburuaren ibilbidea, eta poema bakoitzaren gaia:

Gaixotasuna, samina, esperantza (egunsenti), ilusioa edo bizipoza (soineko estua), bortxa eta enpatia (haur bat jo dute), bizipen zirraragarria (irribarrea), mina berriro, eta enpatia (mina), besteak ezagutzen, besteekiko harremana (niri begira), galera latzak (gurasoen galera; baina umeak bizitzaren kometari heltzen dio), txirotasuna (auzo tristea, non umea aingerutxo baten modura bizi den), hiriaren hots etengabea, txitxarra baten antzekoa, bizitza estaltzen duena (hiri txitxarra), misterioa (ilargia hegan), existentziaz galdezka (nire bidea), zorionaren egarria, zorionaren nostalgia (zorion haizea), bizitzaren amaiera gogoan ez gara betirako, etorriko da gainbehera (agure eria), baina bizitza etengabe berritzen da (jaiotza), haurtzaroaren etengabeko eraberritze bezala ere ikus daiteke bizitza, denbora zirkularra (zoriona), memoria ere erabiltzen dugu etengabeko eraberritze hori adierazteko (aspaldiko oroitzapenak), memoria horren biltegia zahartzarora da (paseatzen), natura bera da gure aingeru guardakoa (sagarrik), existentzia osoa, eguzkia eta ilargia, neskatxa baten begiek biltzen du (neskatxaren begiak), eta epifania existentzial horrek goia jotzen du, Tabor moduko bat (ezezaguna), eta poza nagusitzen da, kasu honetan, ibilbidearen ondoren, poz existentziala da, haurtasuna galdu ez duen zaharraren poza izan daiteke (pozik), munduko gorabeherak adarño kraskatu baten tamaina hartzen dute (adarñoa krik), eta mundua jolas bihurtzen da, ispilu jolas bat (putzuan...), eta badoa bizitza txori bat bezala ilunperantz, baina ez da ilunpe horren beldurrik ageri (txori galdu bat ilunbistan), bizitzaren ez-ziurtasuna ere haur-jolas da (elur zelaian), bizikleta hor dago, bizia garraiatzen duen hori, gu amaierara eramateko prest, tristura puntu batekin (haur batek...), berriro denboraren joanaren bariazioa (aitona), eta badoa haurtasuna loak hartzera (gau-festa), azken batean bizidunok hauskorrak gara (Bizitza dardara bat da), eta gure bidaia zuhaitzetik behera datorren hostoaren pareko da, bidaia horren edertasuna eta samurtasuna geratzen zaigu (adioa). (Igerabide, 2021)

Dena uztartua dago bizitzaren yin-yang bukaezinean. Japonian bada pentsatzeko modu bat. Juan Kruz Igerabideren liburuaren egitura horrekin bat dator, nahiz eta hori bereak intuitiboki egin duen:

La expresión lógica de los japoneses no es lineal como en el mundo occidental, sino que consiste en señalar algunos puntos sugestivos en forma de segmentos. Debajo de estos puntos subyace una lógica lineal y firme. Al tratar de integrar los puntos sugestivos para formar una línea se pone de manifiesto la sensibilidad creativa de la expresión literaria. (Ota 2020: 99)

Botoi bat bezala liburuaren egiturak bide hori jarraitu du: Ez du lerro zuzena maite, puntu batzuk jarri ditu, haurrak ginenean, irudia agertu zedin lerro baten bidez puntuak biltzen genituen moduan. Hor ditugu poza eta tristura, gaixoa eta osasuna, samina eta alaitasuna... Niaren ikuspegia bermaturik Juan Kruz Igerabideren poesiak egitura bikoiztua jarraitu du liburuaren sormenean. Pentsakizun japoniarrak adieraziko lukeen bezala:

Tal vez sería monótono recorrer un solo camino como una línea de la cual nunca nos desviamos". (Ota 2020: 99).

Finantziazioa

Artikulu hau Eusko Jaurlaritzak eratzen duen Ikerketa Talde Finkoen Sarean kokaturik dagoen eta Euskal Herriko Unibertsitateak onartu duen LAIDA (Literatura eta Identitatea) Ikerketa Taldearen (IT 1397/19, GIU 20/26) eginkizunen barnean egin da.

Bibliografia

- Igerabide, J. K. (1999): *Botoi bat bezala/ Como un botón*. Bilbo: Anaya/Haritza.
- Ariztimuño, J., “Aitzol” (1933): Itz- aurrea in ELKAR LANEAN: *Eusko Olerkiak: Poesías Vascas. 1933* (V-XXX orr.). Euzkaltzaleak. 2021-05-03an hartua, hemendik: <https://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/649>
- Billelabeitia, M. (2009): Hosto gorri, hosto berde (2002). Juan Kruz Igerabide in J. Kortazar (zuz.): *Euskal Literaturaren Hiztegia. Idazlanak*. 2021-05-03an hartua, hemendik: <http://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=620>
- Billelabeitia, M. (2011): Hosto gorri, hosto berde (2002). Juan Kruz Igerabide in X. Etxaniz eta J. M. López Gaseni (arg.): *Eguno euskal haur eta gazte literaturaren historia* (181-187 orr.). Bilbo: UPV-EHU Argitalpen Zerbitzua.
- El Cultural (2018, irailaren 27): Juan Kruz Igerabide, Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil 2018. *El Cultural*. 2021-05-03an hartua, hemendik: <https://elcultural.com/Juan-Kruz-Igerabide-Premio-Nacional-de-Literatura-Infantil-y-Juvenil-2018>
- Gardezabal, H. (prestatzen): Juan Kruz Igerabideren *Hosto gorri, hosto berde* haiku bildumaren azterketa: sinboloa. Argitaratu gabea.
- Igerabide, J. K. (1993): *Bularretik mintzora. Ahozkotasuna eta literatura*. Donostia: Erein.
- Igerabide, J. K. (2002): *Hosto gorri, hosto berde. Hoja roja hoja verde*. Madril: Centro de Lingüística Aplicada Atenea.
- Igerabide, J. K. (2005): *Hosto gorri, hosto berde. Hoja roja hoja verde. Feuille rouge, feuille vert*. Madril: Centro de Lingüística Aplicada Atenea.
- Igerabide, J. K. (2020): *Del pecho a la palabra. Infancia de canto y cuento*. Zaragoza: Pantali.
- Igerabide, J. K. (2021): *Gutun pertsonala*. Argitaragabea.
- “Imagen” (2020). In *Diccionario de la Lengua Española*. 2021-05-03an hartua, hemendik: <https://dle.rae.es/imagen%20?m=form>

- “Irudi” (2021). In *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. 2021-05-03an hartua, hemendik:
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=irudia&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=en&bila=bai
- Literaturaren Zubitegia (datarik gabe): Juan Kruz Igerabide. *Literaturaren Zubitegia*. 2021-05-03an hartua, hemendik: <https://zubitegia.armiarma.eus/?i=50>
- Logde, D. (1998): *El arte de la ficción. Con ejemplos de textos clásicos y modernos*.
Bartzelona: Península.
- Kortazar, J. (2002): Introducción in J. K. Igerabide: *Hosto gorri, hosto berde. Hoja roja hoja verde* (5-17. orr.). Madril: Centro de Lingüística Aplicada Atenea.
- Manterola, E. (2012): *Euskal Literatura itzuliaren katalogoa*. 2021-05-03an hartua, hemendik: <http://ehu.eus/ehg/eli/>
- Ministerio de Cultura y Deporte (2018). Juan Kruz Igerabide, Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil, 2018. *Ministerio de Cultura y Deporte-Gobierno de España*. 2021-05-03an hartua, hemendik:
<http://www.culturaydeporte.gob.es/actualidad/2018/09/20180927-pnliteraturaij.html>
- Oliveira Araujo, R. (2018): Mis nietos son mis críticos: cuando no les gusta lo que les presentas, pasan de ti y siguen jugando. *Diario de Noticias*. 2021-05-03an hartua, hemendik:
<https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/cultura/2018/09/28/nietos-son-criticos-les-gusta/576445.html>
- Ota, S. (2020): *Seis claves para leer y escribir haiku*. Madril: Hiperión.
- Sánchez, A. (2018): Elena Odriozolaren irudien azterketa: *Hosto gorri, hosto berde* Juan Kruz Igerabideren liburuan. *Gizartea eta Artea haur eta gazte literaturan. Ikerketa Kulturalak 4*. Erroa: Bilbo.